

# Haur nerabe eta gazteen sustapen birtualerako urratsak

[www.gipuzkoangazte.eus](http://www.gipuzkoangazte.eus)



[Europar Batasuneko gazteria-arloko profesionalen topaketa](#) digital batetik ateratako ondorioak. 2019.

## 1.- BEHARREZKOAK DIREN BALIABIDEAK LORTU

Batzuetan, teknikari zein hezitzaileok ez ditugu sustapen digitala egiteko behar diren baliabideak. Sarean egiten dugun lana ere gure plangintzan txertatu behar dugu, eta horretarako beharrezkoak ditugun tresnak ere identifikatu behar ditugu. Jarritako helburuek esango digute zein diren eta, gure aurrekontuak osatzean, eskura izango ditugula bermatu beharko dugu.

Halaber, honako elementuak ere kontuan hartu beharko ditugu:

**Haurren eta gazteen arloko profesionalen sustapen digitalerako beharrezkoak diren gaitasunak izan behar dituzte.**

Agian ez da beharrezkoa gure zerbitzuetako profesional guztiak sustapen birtuala egiten hastea; nahikoa izango da hezitzaile pare bat gazteekin ingurune birtualean harremana sortzen hastea. Eremu honetan haurren eta gazteen arloko profesionalen aurrez aurreko zerbitzuetan bezalakoak izan behar dute eta berdin aritu. Sustapen birtualari dagokionez, honako hauek egin beharko lirateke:

- Egon gazteen eskura.
- Erantzun haien galderari, beraien hizkuntza erabiliz (ikurrak erabili).
- Kontuan izan komunikazio digitala ez dela norabide bakarrekoa, erantzuteko aukera eman behar da beti.
- Banakako harremana baino, saia zaitez taldeko lana egiten.
- Sare sozialekiko jarrera irekia izan behar da. Ez dira sare guztiak ezagutu behar, baina probatzeko prest egon behar da.

**Ziurtatu haurren eta gazteen arloko profesionalen ulertzen dutela sustapen digitala egiteak zer garrantzi duen.**

Zerbitzuetako profesional batzuek ez dute jarrera oso irekia erakusten sustapen digitalarekiko, ezta orokorrean sare sozialekiko ere. Baina argi izan behar dugu dena dela sustapena, nahiz eta beste kanal batzuk erabili, eta sustapen digitalak bere abantailak dituela. Hala ere, zalantzak sortzen badira, praktika egokiak aztertu daitezke, egin daitekeela ikusteko. Pentsatu behar dugu garrantzitsuagoa dela Sarean presentzia izatea eta gazteen eskura egotea, bertan plangintza oso zabala izatea baino.

### **Eman zerbitzuetako profesionali gazteak erakartzeko gailu egokiak.**

Horiek telefono mugikorrek, ordenagailu eramangarriak eta Internetarako konexio egokia besterik ez dira. Segurtasun-neurriak ere kontuan hartzea ezinbestekoa da, gazteen datuak kudeatuko baitira. Bestelako baliabiderik erabiliko bada, bideo-jokoak esaterako, ziurtatu zerbitzuko gazteek erabiltzen dituztenak direla. Zaharkituta badaude, zailagoa izango da gazteengana iristea. Egia da gazteen artean tresna hauen erabilera oso azkar aldatzen dela eta, hortaz, horretara egokitzen joateko ahalmena izan behar dugu.

### **Haurren eta gazteen arloko profesionalak on line aritzeko prestakuntza jaso behar dute.**

Sarean arituko diren profesionalak beharrezko prestakuntza jasotzen dutela bermatu behar dugu. Horretarako, egon daitezkeen ikastaroetan parte hartzeko aukera izan behar dute eta, horrelakorik ez badago, geuk antolatu beharko ditugu. Prestakuntza horren bitartez, profesionalak gazteek erabiltzen dituzten sareak ezagutuko dituzte, horietan mugitzen ikasi beharko dute, eta informazioa non eskuratu ezagutu beharko dute, besteak beste.

### **Ziurtatu hezitzaileek beraien zalantzak argitzeko gune bat dutela.**

Sustapen digitalean sortzen diren galderak planteatzeko, zerbitzuan gune bat sortu behar da. Erabiltzeekin batera galderak eta zalantzak sortuko zaizkigu, eta denon artean erantzun egokienak bilatu beharko ditugu. Praktika egokiak partekatzeko lekua ere izan daiteke, funtzionatzen duena beste leku batzuetan zabaltzeko.

### **Gazteen hizkuntza eta arau sozialak ulertu behar dira.**

Aurrez aurreko esku-hartzean bezala, Sarean ere lengoia ezberdinak baliatzen jakin beharko dugu: adibidez, memeak edo emojiak erabiliz, gazteek egiten duten moduan. Horrek gertutasuna ematen du, beraiekin komunikatzeko interesa dagoela ikustarazten du.

## **2.- EZAGUTU ZURE HARTZAILEAK ETA NON AURKI DITZAKEZUN:**

Sustapen digitala egiteko ezinbestekoa da jakitea gure hartzaileak nolakoak diren, zein harreman mota dituzten, Sarean nola komunikatzen diren eta noiz erantzungo diguten. Horrela aukeratu ahalko ditugu tresna, plataforma eta ekintza aproposenak, gure erabiltzaileen erantzuna ziurtatuko digutenak. Interesgarria izan daiteke gure proposamenak gazteekin beraiekin partekatzea, benetan bide onean goazen gauden jakiteko.

Gure hartzailleei ondoen egokitzen zaizkien plataformak aukeratzeko, honako pauso hauek eman behar ditugu:

- Aztertu gazteak Sareko zein lekuetan mugitzen diren. Galdetu non dituzten profilak, nahiz eta guk horietan beraiekin harremanetan egoteko aukerarik izan ez. Ikusi ea gune horietan egon gaitezkeen edota gure guneetara erakarri behar ditugun.

- Zerbitzuen profilez gain, interesgarria izan daiteke profil pertsonal-profesionalak ere izatea. Gazteak gertuago egoteko aukera bat da, konfiantzazko giroa sortu eta gero zerbitzuko baliabideetara eramateko.

- Marketin eraginkorra egiten badugu eta Sarean presentzia indartsua badugu, errazagoa da gazteek gurekin kontaktatzea.

- Erabaki zein sare sozialetan arituko garen. Guztiak ez dira berdinak; eskaintzen dituzten aukerak ezberdinak dira. Batzuk gure helburuetarako egokiagoak izango dira besteak baino, eta hau ondo aztertu beharreko zerbait da. Sare batzuetan profilak irekiak dira, eta horietan sar daitezke gure hartzailleak ez diren pertsonak ere, alegia erantzun ez arren guztia irakur dezaketenak. Beste sare batzuetan edukia desagertu egiten da denbora baten ostean, eta horrek segimendua egitea zailtzen du. Abidideak: Instagram, WhatsApp, Steam komunitatea, Skype, Discord, Ninchat,...

- Sare sozialetan lan egiteko gidak eduki behar ditugu, profesionalen artean aldaketak izanez gero, lanean jarraitu ahal izateko. Hona hemen zehaztu beharreko hainbat puntu:

- \* Hezitzaileen profil profesionalak sortzen badira, argi utzi behar da lanekoak direla, ez pertsonalak.

- \* Erabaki sareetan zein ordutegitan lan egingo dugun, eta jakinarazi gazteei.

- \* Aldez aurretik zehaztu behar da sor daitezkeen gazteen post edo sarrera desegokiei zein erantzun emango zaien.

- \* Ez aritu inoiz bakarka, sustapen digitalak talde-lana izan behar du.

- \* Eduki, iritzi, eta abarrek bat etorri behar dute zerbitzuaren balioekin.

- \* Kontuan izan Sarean egiten ditugun argitalpenek kutsu profesional eta pedagogikoa izan behar dutela. Izan ere, idazten dena bertan jasota geratzen da, edozeinek irakur dezake. Arazoen aurrean, dena idatziz jaso, eta gorde dokumentazio guztia (pantailazoak barne).

- Kontuan hartu SEO posizionamendua, gure hartzailleek sarean gu topatzea erraztuko baitu.

### **3.- EZTABAIDATU ETA ADOSTU SEGURTASUN-NEURRIAK ETA ALDERDI ETIKOA:**

Sarean lan egiten hasiko bagara, garrantzitsua da segurtasunarekin eta jarrera egokiarekin lotutako hainbat gai eztabaidatzea. Hau guztia lanean hasi aurretik zehaztu behar da, ez egiteak arazoak sor baititzake. Honako puntuak kontuan hartu beharko genituzke:

- Datuen babesa, legedia eta konfidentziasunari buruzko pautak argi izan behar ditugu. Esaterako, gazteekin ditugun elkarrizketak zeinek ikus ditzakeen zehaztu behar da, horrelako segimendua nork egingo duen. Gazteei ere argi utzi behar zaie

profesionalak gabela eta Sarean ere esaten digutenaren arabera erantzungo diegula, aurrez aurre hitz egiten dugunean bezala. Gure herrialdeko araudia ere ondo ezagutu behar dugu.

- Sarean arituko diren haurren eta gazteen arloko profesionalak beren bizitza pertsonaleko zein datu emateko prest dauden zehaztu behar da. Erabiliko den izena, argazkia, emango den informazioa... dena alde zuzenetik zehaztu behar dira, emandako informazioa guztiontzat eskuragarri egongo da-eta. Zenbait sareetako profiletan beharrezkoa izango da gutxieneko informazio bat jartzea, kontu faltsutzat har ez dezaten.

- Zehaztu gazteentzat noiz egongo garen. Zenbait egoeratan hezitzaileak edozein unetan erantzuteko prest egon daitezke (batez ere egoera zailan dauden gazteekin), baina ezinbestekoa da alde zuzenetik ordutegia zehaztea eta gazteei jakinaraztea. Kasu berezietarako kanal espezifikoak sor daitezke, halako egoera batean dauden gazteek kontaktatu ahal izateko.

#### **4.- SAREAN EGITEN DEN ESKU-HARTZEA ETA AURREZ AURREKOA UZTARTU EGIN BEHAR DIRA:**

On line lan egiteak abantaila ugari ditu, baina zerbitzuetan aurrez aurre egiten dugun lanarekin bat egin behar du. Batzuetan zaila izango da biak uztartzea, kasu batzuetan Sarean topatzen ditugun gazteek zerbitzura etorri ezin dutelako, edota zerbitzuan dauden gazte batzuk sareetan ibiltzen ez direlako (hauek gutxienekoak izan arren).

Horregatik, beharrezkoa da bi eremuak lotuko dituzten ekintzak proposatzea:

- Sarean egiten diren bideo-jokoen topaketek jarraipena izan dezakete zerbitzuan.

- Sarean egin daitezkeen hainbat ekintza zerbitzuan bertan ere gara daitezke, modu analogikoan.

- Sare sozialetan ditugun elkarrizketak fisikoki egingo diren ekintzekin lotu ditzakegu.

- Sarean bizi ditzaketen egoera zailen buruzko saiok antola ditzakegu zerbitzuan bertan, rol playing-eko dinamiken bidez nola erantzun ikas dezaten.

- On line aholkularitza beste mota bateko ekintzekin uztartu dezakegu, esaterako, zerbitzura etortzeko gonbidapena luzatuz.

<https://pixabay.com/es/vectors/ubicaci%C3%B3n-la-tierra-mapa-mundo-4496459/>

<https://pixabay.com/es/vectors/mundo-internet-la-tierra-4257494/>

[https://pixabay.com/es/users/megan\\_rexazin-6742250/?tab=popular&pagi=2](https://pixabay.com/es/users/megan_rexazin-6742250/?tab=popular&pagi=2)

<https://pixabay.com/es/vectors/conexi%C3%B3n-internet-digitales-red-4166469/>

<https://pixabay.com/es/vectors/a%C3%B1adir-nuevo-icono-a%C3%B1adir-nuevo-2244771/>

<https://pixabay.com/es/users/raphaelsilva-4702998/?tab=popular&pagi=2>